



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/4/2021

ORG15I02W

Código de validación/Balidazio kodea
10082D2H3R5V3B710TU9



Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2021eko otsailaren 09an hartutako erabakiz Udalbatzarraren iritzipean jarriko da "Ermuko indarkeria matxistaren aurkako udal plana". onesteari buruzko ondorengo ebazpen proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen gehiengo osoz, gaiari buruz erabaki dezan:

Ermuko indarkeria matxistaren aurkako udal Plana onartzea. Hona hemen planaren laburpena:

Ermuko udalerriak ibilbide luzea egin du emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzen, bai eta emakumeen egoera eta jarrera hobetzeko eta indarkeria matxistaren adierazpen ezberdinen aurka borrokatzeko neurriak eta baliabideak abian jartzen, indarkeria matxista baita emakumeen aurkako bereizkeriaren eta diskriminazioaren ondoriozko larriena, zis edo trans eta aniztasun osoan.

Tokiko mailan indarkeria matxistaren aurkako plan bat edukitzea udal-politika horien eta izaera orokorragoko beste politika batzuen ebaluazioaren eta bilakaeraren emaitza da. Politika horiek gomendatzen dute esparru espezifiko bat edukitze, urratsak ematen jarraitzeko, jarduerak jasotzeko, behar diren baliabideak adierazteko eta eskumen eta erantzukizunak markatzeko, herritarren eta erakunde, organismo eta eragileen ezinbesteko parte-hartzea ahalbidetuz eta sustatuz, arrakasta izan dezaten. Horretarako, lege- eta erakunde-esparru zabala dago.

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 09 de febrero de 2021, se eleva al Pleno de la Corporación para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por mayoría de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquélla, sobre propuesta de aprobación del "Plan municipal contra la violencia machista de Ermua".

Aprobar el Plan municipal contra la violencia machista en Ermua, cuyo resumen es el siguiente:

El municipio de Ermua tiene un largo recorrido en el desarrollo de políticas de igualdad de mujeres y hombres y en la puesta en marcha de recursos y medidas dirigidas a mejorar la situación y posición de las mujeres y a luchar contra las diversas manifestaciones de la violencia machista, que es la más grave consecuencia de la desigualdad y la discriminación contra las mujeres, sean cis o trans, y en toda su diversidad.

El objetivo de contar con un Plan contra la violencia machista a nivel local es resultado de la evaluación y evolución de estas políticas municipales y otras de carácter más general, que recomiendan disponer de un marco específico que señale la dirección en la que seguir dando pasos, recoja las actuaciones, indique los recursos necesarios y marque las competencias y responsabilidades, facilitando y promoviendo la participación necesaria de la ciudadanía y de las distintas instituciones, organismos y agentes, para su éxito. Para ello se cuenta con un amplio marco legal e institucional.

Indarkeria matxistaren aurkako udal-planak 4 urteko indarraldia ezartzen du, 2021etik 2024ra, eta Ermuko Udalak datozen urteetan zer gaitan eta nola esku hartu behar duen adieraziko du, indarkeria matxista desagerrarazteko helbururantz aurrera egiteko. 5 garapen-ildo estrategiko ezartzen ditu, bai eta 45 jarduera ezartzeko beharrezkoak diren sustapen-, koordinazio- eta jarraipen-egiturak ere.

Berdintasun Unitateak plan ireki bat proposatzen du, jarduketak birformulatu edo txertatu ahal izateko, betiere planean identifikatutako beharrak eta helburuak kontuan hartuta.

El Plan municipal contra la violencia machista establece su vigencia para el periodo de 4 años que abarca desde 2021 hasta 2024 y se configura como la ruta que señalará en qué temas y cómo ha de intervenir el Ayuntamiento de Ermua en los próximos años para avanzar hacia el objetivo de erradicación de la violencia machista. Establece 5 líneas estratégicas de desarrollo y las correspondientes estructuras de impulso, coordinación y seguimiento necesarias para la implementación real de un total de 45 actuaciones.

Desde la Unidad de Igualdad se propone como un Plan abierto en el que se puedan reformular o incorporar actuaciones, siempre teniendo en cuenta las necesidades y objetivos identificados en el mismo.

BOZKETAREN EMAITZA

PSE-EE/PSOE: Aldekoak 6 Abstentzioak 1 (ez zegoen)

EH Bildu: Aldekoak 2

EAJ/PNV: Aldekoak 4

Elkarrekin Ermua: Aldekoak 2

PP: Aldekoak 1

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

PSE-EE/PSOE: A favor 6 Abstenciones 1 (ausente)

EH Bildu: A favor 2

EAJ/PNV: A favor 4

Elkarrekin Ermua: A favor 2

PP: A favor 1